

Aizkorriko lagunen egun handia igandean

Aizkorrik eta Aizkorri maite duten guztiek egun handia izango dute igande honetan: Zegamako Udalerriak antolatuta, Aizkorriko Lagunen Eguna ospatuko da. Ekitaldien artean, izen bera daraman elkarte sortuko da, eta Pako Iriondo EMFko lehendakariari egingo zaio omen. Era berean, 1934an aterpea eraikitzen parte hartu zuten guztiei ere omenaldia eskainiko zaie.



Zegamako zaindari, babesle eta itzal da Aizkorri. Igandean, ohore egingo diote zegamarrek eta bertaratzen diren guztiek.

Ramon Oñasagasti

IGANDE honetan ohi baino mendizale gehiagok gorteiatuko du Aizkorriko tontorra eta mendikatea. Mendi harresi haren altzoko herrien zaindari, babes eta edergarri, Aizkorri ez da edozein gailur, Euskal Herriko toki magiko, harrigarri eta kutun horietakobat baizik. Horregatik guztiagatik, zegamarrek eta igandean Aizkorri biltzen diren guztiek beren maitasuna agertuko diote. Izan ere, Aizkorriko Lagunen Eguna horretan, Aizkorriko Lagunen Elkarte sortuko baita. Juan gnazio Galdos Zegamako alkateak —elkartearen eragileetako bat a bera— garbi asko azaldu digu rrazioa: «Zegama eta Aizkorri, izkorri eta Zegama, oso lotuak aude. Zegamarrontzat herriari zati eta estampa bat da Aizkorri. Urtaro danak han ikusten digu; eguraldia ere Aizkorrik balantzatzen digu; erabat lotuta aude biak, eta hortik sortu zen karte hau sortzeko ideia». Lehenbizi mendi ibiladi bat ngo da, jai giroan, Aizkorri. izeko 7:00etan da biltzeko ordua, Zegamako plazan, eta goiz-goiz egingo da Aizkorriko igoera. Amezti Mendi Elkarte kideen aritzapean. Beherakoan, San Adriango itan meza izango da 11:00etan, eta onen, Sancti Spirituko kanpan hamaiketa: txorixo ogitartekoa eta edaria mendizalari hara hurbiltzen diren guztientzat. Zegamara jaitsi ondoren, Aizkorriko Lagunen irtea eratuko da ofizialki, eta 15:00etan iri herrikoia izango da. Aizkorriaren inguruko jai honetan, zegamarrek aitortza edo omen txiki bat egin nahi du. Pako Iriondori, EMF Euskal Mendi Federakundeko lehendakariari. Honela azaldu digu Galdos arrazoiak: «Batetik, Pañonok, ondo bidean, aurtun utziko du al Mendizale Federakundeko lehendakari; bestetik, gure mendizaleen artean rente bat da eta egoki ikusi genuen guzti honetara gonbidatzea». arteak helburu nagusi bat izango du, sen hitzetan: «Aizkorri mendiko onda-



Aizkorriko aterpea, ekaitzen babesleku

Aizkorri inguruan artzain zeudela, ekaitz batek hezurretarainoko beldurra sartu zien Matias Gorrotxategi Otaegi eta haren emazte Maria Otaegi Mujikari; Etxeberri-Erdikoa baserrikoa zen Matias eta Larreakoa baserrikoa emaztea. Halako larrialdian, ekaitz hartatik bizirik ateratzen baziren Aizkorriko tontorrean aterpe bat eraikiko zutelako promesa egin omen zuten senar-emazteek. Matias 1925ean hil zen, eta testamentuan garai hartako 2.000 pezeta utzi zituen Aizkorriko aterpea eraiki zedin, hartara beste inork berak bezalako estutasun eta beldurrik pasaez zezan.

Aizkorri mendia Zegamako herri lurretan egonik, Udalak 124,80 metro koadro lur eman zituen doan. Aterpea 1934. urtean eraiki eta inauguratu zen. Ordukoa da Indalecio Ojanguren argazkia. Horretarako Matias Gorrotxategi eta bere emazte Maria Otaegik jarritako 2.000 pezeta haiek (interesekin 3.085 pezeta bihurtuak), Foru Aldundiak jarritako 2.500 pezetak, Turismoko Patronatu Nazionalak jarritako beste 2.000 eta mendizaleen artean bildutako 8.000 pezeta behar izan zituzten.

Materiala asto eta mando gainean eraman zen tontorrera, eta herriko argin eta peoiak ibili ziren lanean. Geroztik, aterpeak zenbait berritu hartu ditu 1945ean eta 1982an.

Egitaraua

7:00 Mendi irteera Zegamako plazatik.

11:00 Meza eta hamaiketakoa. Beherakoan atsedena egingo da San Adrianen. Iñaki Aranzadik meza emango du eta ondoren Sancti Spiritun hamaiketakoa.

12:00 Sancti Spiritutik Zegamara jaitiera.



Pako Iriondo

14:00 Aizkorriko Lagunen Elkartearen sorrera. Pako Iriondo EMFko lehendakariari omenaldia. Aizkorriko aterpea ahalbidetu zuten oroimenezko ekitaldia.

15:00 Bazkaria herriko kiroldegian.

17:00 Erromeria herriko kaleetan.

sun naturalak errespetatu, zaindu, ezagutarazi eta gozatzeko ekimenak bultzatzea edo eragitea, eta herritarren mendizaletasuna eta naturazaletasuna bizkortzea, gazteengan batez ere». Igandean bertan, nahi duen guztia elkarte bazkide egin liteke, doan. Elkartearen eragileek hasiak dira aztertzen bazkide horiei zer-nolako onurak eskaini. «Aizkorri Parke Naturala izateko aitortpenaren ataritan dago, eta horren inguruko informazio guztia, Zegamaren ingurukoa, eta oro har, Aizkorriko bidalikozai bazkideei», azaldu digu Galdos.